

www.noaia.com

Noaia !!



San Tomas azokako
lehiaketak martxan dira



Badator Mendi Astea



Zorionak eta Urteberru on!

Urtinea Lorategia



Egun onia iraká • Sari Esteban auzoa • ☎ 943 362 255 / Faxa: 943 386 054 • urtinea@euzkoanet.net



- %100 Kolonbiako kafea alean edo eho berria etxera eramateko "La casa del cafe".
- Batido naturalak.
- Ezeizako tarta edo pastelak enkarguz.
- Sukalde tradizionalen eginiko otorduak prestatzen dira aurrez eskatuta.

Errekatziki, 2
LISURBIL
Tel.: 943 24 33 71



**FUNERARIA
GONZALEZ**

Tel: 943.36.21.63
608.16.77.92 eta 660.38.86.52



USURBILGO EHORZTETXEA

**Zerbitzu azkarra eta etengabea 24H.
Belatoki guztietan zerbitzuak.
Lekualdaketak, hilarriak, eskelak...
Ospitale zentru eta egoitzetan ere.
Seguru konpainia guztiak**

Muna lurra Kalea 8

Albistea iruditan !!

Kirolarien pozak eta penak

Kirolarien garaipenak dira behin eta berriz nabarmentzen direnak. Baina kirolariak, bere bakardadean, ahalegin eta sakrifizio ugari egin behar izaten ditu. Hori izan zen Udarregi ikastolako barne-patioan egin zen mahaingurua-ren abiapuntua.

Hitz Aho guraso elkarteak hainbat kirolari bildu zituen Udarregin: Amador Granado eta Zubeldia anai txirindulariak, Iñaki Errasti arraunlaria, Imanol Agirretxe futbolaria eta Xabier Usabiaga txirindulari ohi eta kazetaria.

Hitz Aho guraso elkarteak DBH zikloko 12-16 urteko gazteei zuzendutako ekitaldia ez zen oharkabean pasa, aretoa jendez gainezka izan baitzen.



JOXE MARI IZETAK GIDATU ZUEN MAHAINGURUA. HAIMAR ZUBELDIA HITZALDIA HASITA IRITSI ZEN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com
Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregerai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

AUKERA BERDINTASUNAREN BILA _____ 5. OR.

KRONISTAK KALEJIRAN _____ 6. OR.

UDALBATZA PLENOKO ERABAKIAK _____ 8. OR.

ATEZ ATEKO BILKETAREN XEHETASUNAK _____ 12. OR.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Industri eta iragarki
SEBIGRAFIA
TANPOGRAFIA
KARRETTAN LINDILARRAK
OSU
943 371 954
UGALDEA PDL.36-2-USBIL

ALIPROX
Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USBIL

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okimategia - Gozategia
LABE-GOXO

JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA
Juan Jose enca, 6 Kalejar
Telf: 606 37 21 05



IDOIA TORREGARAI

Ama hasiberriaren balada (I)

Hiru hilabete pasatxo dira "kargu" berria hartu dudanetik. Hiru hilabete ZORAGARRI; hiru hilabete SINESTE-ZIN; eta zergatik ez, hiru hilabete ERO.

Ez naiz hemen hasiko ama izateak suposatzen duena deskribatzen (ez dut uste hain gauza handia azaltzeko gai izango nintzakeenik). Asmo xumeagoarekin, "hasiberri" honek egunero topatzen dituen hainbat egoera xeble kontatu nahi ditut, bere kargupean hankagorririk ez dituenarentzat guztiz ezezaguna den mundu oso baten existentzia emateko (duela hiru hilabetetatik ezagutzen hasi naizena).

- Logistika. Ia ezin sinistukoa da gaur egun haur batek behar dituen (edo behar dituela uste dugun) gauza pila imajinatzea. Uste dut NASAK Martera joateko behar duen azpiegitura simpleagoa dela gure txikiena baino: lehen hilabetetako sehaska txikia edo moisesa; handixeago egiten deneko sehaska "ofiziala"; paseatzaera ateratzeko kotxezitoa; gainean eramateko kanguroa; autoan jartzeko ahulkia; bainurako ajuarra (Donostiko La Perla bainuetxean dituzten baino gauza gehiagorekin)... eta abar eta abar. Hainbeste trasterekin umea non dagoen ahaztu ez bazaizu, gaitz erdi.

- Pardelak. Badaude tamaina desberdinetakoak, neska edo mutilentzat, animalitxoekin, xurgatze-maila desberdinekin, banda elastiko handiagoarekin... Hain da konplikatua mundu hau, ez baita harritzekoa lehen aldian etxera lau talla handiagoak diren paketearekin bueltatzen bazara. Lasai; hilabete baten bueltan pixohialetan katedraduna bihurtuko zara eta.

- Poltsa. Goian aipatutako logistikaren zati bat da, baina aparteko puntua behar duena. Behin ama (edo aita, edo haurren zaintzaile) izanda, BETI eraman behar duzu gainean poltsa. Bertan txikiarentzat aldatzeko erropatik hasita txupetearaino aurkitu dezakegu, eta tartean babak garbitzeko toallatxoak, jostailu kuttuna, kolikoentzako homeopatia, ipurdia garbitzeko toallak, pardelak (bere tamainakoak, ahal bada), haurren osasun kartilla (aurreko egunean pediatra izan duzu eta ateratzea ahaztu zaizualako) eta azkazalak mozteko guraizeak, BESTEAK BESTE! Ez da harritzekoa beraz poltsak Olentzeroren zakuaeren tamaina izatea, eta behin baino gehiagotan altxatu ezinik ibiltzea. Poltsa zure gorputzaren luzapen bat bihurtzen da, eta noizbait ahazten bazaizu AKABO!

(Jarraituko du)

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika!

"Emakume baten... egun zoriontsua"

Azaroak 25, asteartea. Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunerako antzerkia egin genuen. Kale Antzerkia behar zuen izan eta Irrati Antzerkia izan zen ere. Komediaz gain, formula edo formatu berriak probatzeko nahiagatik esperimientua edo 'performance' antzekoa egin genuen. Aurrez audio-CDan grabatutakoa, fisikoki irudikatzen ahalegindu ginen.

"Emakume baten... egun zoriontsua" antzeulanaren planteamenduari, indarkeria saihestu nahi izan genuen eta zoriontasuna egunerokoan, uneoro, bertan eskura dugula esan.

Hotza egiten zuen eta frontoira jende dezente bertaratu zen. Etorri zirenak bukaera arte egon ziren. Eskerrik asko. Hotza egi-

ten zuen, eta haizea. Emakumearen kontrako indarkeriagatik, inon ez da giro eta haizea arazoaren oihartzuna izan zela pentsatzen dut. Haizeak pantailak bota zizkigun eta besteak beste, musika ekioparekin ez nintzen fin aritu (Txiribogatik ondo entzuten omen zen). Hasi aurretik frontoiko megafonia probatu izan banu... Eta, entsegu gehiago egin izan bagenitu! Alabaina, hiru egun lehenago Sutegin "Etxe Berri de luxe" zoragarria egin genuen eta gainera, Txerrikikoak hasi berriak garela ez dugu ahaztu behar.

Honela, emanaldia trakets, 'gogorra' gertatu zitzaigun. Akaso, zen eguna zelako, hala gertatu behar! Antzezlana ospakizunerako ez zela argi zegoen. Atentzioa deitzeko balioko zuen bederen.

'Performance' a frontoian baino, kale batean egiteko modukoa dela ezin uka. Gela edo areto batean primeran egin genezake. Hurrengo batean, beste nonbaiten egitera animatuko al gara? Obrak merezi du. Bai. Bai aktore eta bai ikus-entzule gisa, antzezlanei bigarren aukera ematea ona izaten da.

Bitartean, "Emakume baten... egun zoriontsua" audio CDan entzungai izango dugu. Baten batek entzun nahi badu eska diezagula. Zer iruditzen?

Gure emanaldiaren ondoren, kaskoan instalatuta dagoen megafonian, istorioa hiru alditan entzun zen eta baten batek arretaz entzun. Besteren bat, antzerkia ikusi nahirik bila egon zen. Non ote? Airean, ikusi.

Alex Tello

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plateer konbinatuak
TABERNA

Xukin Andoni Errazkin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
663 08 76 71 • USURBIL

Aukera berdintasuna, aztergai

Aukera berdintasunaren inguruko diagnostikoa martxan jarri du Usurbilgo Udalak. Ikerlan honekin zera jakin nahi da: Usurbilen bizi diren emakume eta gizonek aukera berdina al dituzten eguneroko bizitzan. Elhuyarreko aholkularitza talde batek bideratuko du aukera berdintasunaren inguruko diagnostikoa. Herritarren partehartzea funtsezkoztat jotzen da eta horregatik, adinaren arabera, hiru lan talde osatuko dira.

Bazterketarik ba al da gure artean? Hala balitz, hori identifikatu nahi luke Udalak, gero, egoera horietan eragin ahal izateko.

Diagnostiko hau osatzeko, nola ez, herritarren iritziak eta ekarpenak funtsezkoak dira. Informazio hori jasotzeko, hiru lan-talde antolatuko ditu Udalak: lantalde batean, 16-30 urte bitarteko gazteak elkartuko dira; bigarrenean, 31-50 urte bitarteko herritarrek; eta azkenik, 51 urte baino gehiago dutenekin hirugarren lan-taldea osatuko da.

Gaiarekiko interesa duten herritar guztiei aukera zabaldu nahi zaie eta, horrela izan dadin, bi bide zabalduko dira lan-taldeak osatzeko:

- Batetik, erroldatik aukeratuta, hainbat herritar gonbidatuko ditu Udalak, prozesuan parte har dezaten.

- Eta, bestetik, gaiarekiko interesa duten herritarrek izena emateko aukera izango dute, prozesuan parte hartzeko. Horretarako, Udalera deitu behar dute interesdunek. Partehartzeko edo informazio gehiago jasotzeko: 943 377 110.

Lan-taldeak datorren astean jarriko dira martxan.

ABENDUAK 9 ASTEARTEA

16-30 urte artekoak, ikastolan
Ordutegia: 18:00-20:00

ABENDUAK 10 ASTEAZKENA

31-50 urte artekoak, ikastolan
Ordutegia: 18:00-20:00

ABENDUAK 11 OSTEAGUNA

50 urtetik gorakoak, ikastolan
Ordutegia: 18:00-20:00



Genero indarkeria salatzeko antzerkia

Genero indarkeriaren aurkako eguna izan zen azaroaren 25ekoa. Hitzordu honek hainbat herritarren arreta bereganatu zuen. Ongizate, Emakume eta Gizarte Politika batzordeak eskatuta, "Emakume baten... egun zoriontsua" obra eskaini zuen Txerriki Antzerki Taldeak.

Ika-mika!!

"Aginagako herri eskola, zaborrez gainezka" diote...

Idatzi honen bitartez, urriaren 17an Eusko Alkartasunaren web gunean azaldutako idatziari buruz zera adierazi nahi dugu:

-Aginagako herri eskolak ez duela zer ikusirik aipatutako idatziarekin eta onartezina iruditzen zaigula gure eskola

eta Aginagako umeak erabiltzea Udalak bultzatutako proiektu bati kritika egiteko.

-Eskola honi dagokionez, bertan azaltzen dena ez dela egia.

-Udalak garbitzen dituen beste eskola eta lokalak aipatzen diren arren, ez

dugula ulertzen zergatik erabiltzen den Aginagako eskola titularra emateko, ez bada guri kalte egiteko.

-Aginagako guraso eta irakasleen desadostasun osoa azaldu nahi dugula.

347 alea

Marian Viadero

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA MANTENIMENDUA ETA KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Arlztitxo 8. behea · 943 363 348 · 609 888 021

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

Nahiz eta heriotza helduko zaidala jakin



Nahiz eta heriotza helduko zaidala jakin, ez dut haatik horren aurka buru-bihotzez borrokatzerik etsiko. Ez nau ustekabeen harrapatuko! Bizi naizeno bizitza kantatuko dut, eta behar dudana denbora baino lehen hiltzen banaute, nere hortzetan itzaliko den azken antzia beste batenetan loratuko den lehen irria izango da.

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak.

Ihes betea zilegi balitz nunbait balego bakea ni ez nintzake etxe ertzeko loredien maitalea.

Gure oroitzenak itsas galeretako oholak bezala ur gainean doaz kulunka uhainek eraginak ezabatu ezin eta xederik gabe. Ez dakit xederik gabe, baina ezaba ezin... beti!!

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi, kantuz igortzen ditut nik penak ihesi; kantuz izan dudana zerbait irabazi, kantuz gostura ditut guziak iretsi; kantuz ez duta beraz hiltzea merezi?

Bai, Mikel, nola ez. Horregatik Mende oso bat iraganen dut zure ondoan koblaka.

Ilun, ez da dena ilun, begirazazu leihotik, ikustazu baso hori, berdatzen;

berde, zein berde dauden, basoko garo zuhaitzak, zein ixil eta lasai, arratsean; arrats, arrats hontan baso, hartza-zu ene bihotza, buztinetik sortua da, zu bezala.

Bihotz, buztinezko Bihotz! Eta orain zu zaren buztinetik sortuko den lili bat hartu eta hostoz hosto erantzi eta harek zu ere erantzi eta hostoz hosto hartu lili bat.

Ahots kordak ebaki banizkio

Neria izango zen,

Ez zuen abestuko

Baina horrela

ez zen gehiago Mikel izango,

eta nik, Mikel nuen maite!

Nekez uzten du bere sorterrria sustraiak han dituenak; nekez uzten du bere lurra zuhaitzak ez bada abaildu eta oholetan. Nekez utziko du Mikelek nire bihotza.

Mikel: bizi naizeino ez zara hilko; euskaldunik bizi den artean, biziko zara.

Eskerrik asko!

TXOKOALDE

KOLDO HUEGUN

Beti arte



Betiko topi-koei begira jarrita, eguraldia, politika, kirola... txoko honetako zirrikituak nola bete asmatu ezinik, beti bezala azken momentuan, horra hor ustekabeko berria.

Txokoan gure artean hainbestetan izandako figurak utzi gaituela eta berriro ere sortu zeneko izarren hautsetara itzuli dela.

Gertutasuna, sinpletasuna, pertsonaia mitikoa ezik hezur haragizkoa zela erakutsi zigun Zumeta inguruko agerraldietan, baina guk gertutasun hori eskertu arren, historiaren zati bat bezala ikusten genuen. Egia esan, ikusten dugu, ze hainbeste belaunaldi uztartu dituen kantari gutxi batzuk besterik ez dira izan, eta zoritxarrez izarren hauts bihurtu dira.

Inork ez dizkik hegoak moztu, txoria izaten jarraitzen duk, ez dizkiagu moztu ez baina, gurea haiz Mikel. Beti arte!



ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Azken partida

Astelehenarekin batera abendua ere Airitsi zen duela egun batzuk. Baita hotza eta eguraldi petral hau ere. Lehiotik begira jarri naizela, euria eta haizea gogotik ari du egun osoan.

Pasa den igandean Usurbil FTko neskak Tolosan jolastu genuen partida eta orduan ere denbora guztian euriarekin jolastu behar. Tolosako neskak lehen postuan daude eta onenen artean aurkitzen badira ere, gogoz egin genien aurre, baina ezin galtzea ekin.

Ostiralean, arratsaldeko 18:30etan nesken denboraldiko azken partida jolastuko dugu Haranen. Bertara igotzera animatzen zaituztet, asko eskertzen da afizio pixka bat edukitzea. Besterik gabe, ondo pasa jai egunak!!



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Emigrazioa goruntz, harremanak bide berean



Egia da, gero eta gehiago izango ditugu etorkinak gure artean. Batzuk lan munduan sartzeko prestaketa maila onarekin etortzen dira, baina gehienak guk egin nahi ez ditugun lanak egitera iritsi dira beraien herrialdeetatik. Orain berriz krisi garaian gaudenez, betiko galdera azaleratuko delakoan nago: inmigranteek lana kentzen al digute?

Kanpotarrak kopuru handietan etortzen direnean arazo larriak sortzen direla egia da: ghettoak sortzen dira, integrazio arazoak ugaritzen dira, eta abar. Horrek batzuetan konfrontazio moduko bat sortzen du. Baina Aginagan kanpotar kopurua %0,21 da gutxi gorabehera. Usurbilen berriz %4. Ez dut uste hain kopuru haundiak direnik.

Leku eta kultura oso ezberdinetatik iritsitako pertsonak herrian bizi direla badakigu, baina nola iritsi haiengana? Nola jakin dezakegu nola sentitzen diren, zer pentsatzen duten gutaz? Euskal Herrian edo Espainian daudela pentsatzen dute?

Aspalditik bertakoak garenok ez zaigu erraza kanpotik etorri berriengana iristea, baina alde batetik eta bestetik ahaleginak egiten direnez, fruitu politik ikusten hasi gara. Esate baterako, Usurbilen badugu pakistandar bat euskaraz komunikatzeko gai dena. Ikusten ditugu ekuatoriar jatorria duten umeak euskaraz normaltasun osoz lagunartean mintzatzen. Eta adibide gehiago badira.

Larunbatean bateko eta besteko jatorrizko herritarren elkartasunerako ospatu zen festa, hortxe zeuden bulgariarrak, nigeriarrak, dominikarrak, ekuatoriarrak, pakistandarrak... Usurbilgo bizilagun haiek euren kulturen ezagutza batzuk azaldu zizkiguten, eta frontoira hurbildu zirenei beren jaioterrietako gastronomia eta kirolak erakutsi ere bai.

Horrek guztiak bazuen gauza bat oso garrantzizkoa: ospakizun honetan dirurik ez zen izan tarteko, dena izan zen borondatez egina. Horrek asko esan nahi du. Etxera etorri berriak diren hauekiko ezagutzan eta harremanetan urrats polita eman genuela iruditzen zait.

KALEZAR

MADDI GALBETE

Egun bat gehiago



Ozta ozta sartu da etxera gaurko honetan ere.

Afaria prestatu du betiko maitasunez eta zain geratu da beldur apur batez, egongelan.

Agian gaurkoa egun ona izango du. Agian dena ondo joango da eta zorte apur batekin ez ditu biharko egunean azaleko marka itsusiak ezkatutu beharko.

Agian zorientsu izango da behin izan zen bezala, agian ez ditu berriz ere entzungo ahotik datozen berba txarrak. Agian inoiz inork zaindu ez bezala zainduko du berriz ere.

Atea entzun du pixkanaka irekitzen, ondoren giltzarekin isten.

Bere irribarre handienarekin jaso du senarra, betiko muxu goxoa eman dio ezpainen eta esklabu baten antzera, afaria eman dio laztankiro. Gizonaren begiek ordea ez dute lasatasunik ageri. Gaur ere, berriz ere, beste behin, beste egun bat gehiago.

Egun bat gehiago, besterik ez.

Lehengo asteartean izan zen tratu txarrak pairatzen dituzten emakumeen eguna, eta pentsatzen jarri nintzen, zenbat gehiago izango ote diren, goikoaren antzeko istorioak egunero jasaten dituzten emakumeak nola egongo ote diren, isiltasunak noiz arte iraun behar duen. Erantzunik gabeko milaka galdera, zoritxarrez.

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Gurasoenak (I)

Larunbata, semeak pilota partida du arratsaldean. Etxetik abiatu gara 4:30etan, Andoainera. Bidean galdetu diot non dagoen frontoia. Ez daki. Entrenatzailearen telefonoa ote duen galdetu diot. Ezetz, berak.

Plaza Nagusiko frontoian gelditu gara lehen-dabizi. Partidarik ez han; hasi naiz berotzen. Bertako mutilei galdetuta abiatu gara kiroldegi aldera, ibaiatz bestalde dagoenera. Hara iritsi baino lehen berriro galdetzen hasi, eta bigarrenetan jakin dugu guk nahi dugun frontoia Plaza Nagusiaren atzeko aldean dagoela. Berriro atzera, hainbat buelta eman ondoren. Dexente berotuta noa.

Frontoian sartu eta palan ari dira. Harritu egin gara. Han ere ez dago esku pilotarik. Galdetu egin dut ba ote dagoen beste frontoirik. Ezetz. Ni, bero-bero. Semeak aitortu du beharbada Oiartzunen izan litekeela.

Berea seigarren partida da. Berandu, baina erabaki dugu Oiartzuna joatea. Ni errieta bizian. Zigorra: Olentzerotan soinua jotzen aterako da. Berak, apal, onartu egin du.

Azeleradoreari emanda iritsi gara Madalensorora: 5:30ak. Semea korrika barrura, ni autoa aparkatzera. Frontoian sartu eta semea beroketa ariketetan. 4. eta 5. partidak ez dira jokatu hainbat arazo medio. Kontrarioa ez da agertu artean. Zazpiak arte itxaron beharko dugu. Zazpiak arte itxaron dugu; lehiakidea ez da agertu. Semea triste, ni animatu nahian, biak etxe aldera.

Gabon eguneko kantak entsaiatzeko: ostiraletan. Lehenengoa hilaren 5ean, arratsaldeko 7:00etan.



Zubietan Garbitxikia kokatzeko aurrerapausoa eman da azken udalbatza plenoan

Konpostagailu txiki bat, eta hondakinak gaika biltzeko kontziak jasotzea aurreikusten da, Zubietan kokatu nahi den Garbitxikian. Bide horretan, urrats berri bat eman du udalbatzak azken osoko ohiko bilkuran; Hiri Berrikuntzako Plan Berezia behin betikoz onartzea, alegazioetarako zabalduetako epean inork erreklamazioirik ez baitu aurkeztu.

Gehiengo osoaren babesa izan du; alde agertu baitziren, udal gobernu taldeko kideak, Aralar eta EAJ-PNVko zinegotziak. EAKo udal ordezkariak aurka bozkatu zuten. Zubietan zabaldu nahi den instalakuntzaren alde daudela adierazi arren, gune horren zerbitzua zubietarrei soilik eskaintzearen aurka agertu ziren.

ZUBIETARREN ONERITZIA

Bileretara agertutako zubietarrek ia aho batez onartu zuten Garbitxikia bertan jartzea

Udal gobernu taldetik gogorazari zuten, bileretara agertutako zubietarrek ia aho batez onartu zuten Garbitxikia bertan jartzea.



ZUBIETAKO GARBITXIKIAZ APARTE, USURBILDARRENTZAT GARBIGUNE BAT ERE ZABALTzea AURREIKUSTEN DA.

rrek ia aho batez onartu zutela Garbitxikia bertan jartzea. Gaineratu eta lehendik aipatu izan duten moduan, usurbildarrentzat Garbigune bat ere zabaltzea aurreikusten da.

Hirugarren kreditu aldaketa

17 gastu partida gehituko dituzte udal aurrekontuan. Besteak beste lan hauetarako; atez ateko hondakinaren sistema berriko baliabideetarako, Maixu etxeko etxebizitza sozialak era-

berritzeko, Usurbilgo merkataritza garatu asmoz egin nahi den azterketarako, Olarriondo eta Sekañako urbanizazio lanen exekuzioetarako... Diru partida erantsi hauekin udal aurrekontuan egingo den hirugarren kreditu aldaketa da. Proposamena onartu edo ez erabakitzeko egin zen bozketaren emaitza honakoa izan zen; udal gobernu taldea planteatutakoaren alde, EA aurka eta Aralar eta EAJ-PNVko zinegotziak abstenituta.

Genero indarkeriaren aurkako mozioa aho batez izan zen onartua

Biolentzia matxista salatu eta haren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa berresten du Udalak, azaroaren 25eko Emakumearen Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunaren haritik, gobernu taldeak aurkeztu eta aho batez onartu zen mozioan. Ekintzetan oinarrituta, berdintasunaren aldeko udal politi-

ka aktibo, osoa eta koordinatua garatzeko asmoa agertzen da. Beti ere, mota desberdinetako neurriak uztartuta; prebentzio neurri hezitzaileak, eraso baten osteko asistentziako neurriak, erantzun soziala... Adierazpenak bat egiten zuten, hilaren 25erako antolatuta ziren mobilizazio ekintzekin.

Gabonetan ludoteka jartzeko bilera

Gabonetan ludoteka jarri nahi da martxan. Biler bat deitu du Udalak datorren abenduaren 17rako. 19:00etan egingo da bilera, orain arte Zaharren Egoitza izan den lekuan (ludoteka ere, bertan egingo da).

Bilera 0-10 urteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua dago. Gurasoen beharrak zeintzuk diren jaso nahi dira bilera horretan.

Txaramuntoko alokairuko etxebizitzak baldintzak hasieraz onartu dira

Txaramunto lur eremuan kokatu eta alokairu sozialera bideratuko diren hamabi etxebizitzak zozketatzeko bidean, pauso berri bat eman zuen udalbatzak azaroaren 25eko osoko ohiko bilkuran. Udal gobernu taldetik proposatutako erabaki bikoitzari baiezkua eman zioten udal ordezkariak, aho batez: batetik, esleipen baldintzei eta bestetik, aipatu etxebizitza multzoa kudeatzeko Alokabide S.A. eta Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenari. Onarpena, behin behinekoa da. Jendaurrean erakusteko epea zabalduko da orain.

Udal jabetzako 12 etxebizitza, garajekin Txaramuntoko kokatuak. Denak alokairu sozialera bideratuko dira eta zozketa bidez esleitu. Lege, ekonomi eta administrazio baldintzak aho batez hasieraz onartu zituen udalbatzak azken osoko

ohiko bilkuran. Orain, hartutako erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, hamar lan eguneko tartean jendaurrean jarriko da. Epe horretan alegazioak aurkeztuko ez balitz, baldintzak behin betikoz onartutaz joko dira.

Alokabideren eskutik

Bestalde, Usurbilgo Udalaren eta Alokabide SA alokairuko sozietate operadorearen arteko lankidetzaz hitzarmenari aho batez baiezkua eman zioten udal ordezkariak. Sozietatea Txaramunto eremuan kokatutako hamabi etxebizitzak antolatu, kudeatu eta kontserbatzeaz arduratuko da. Udalak alokairuko etxebizitzak esleitzeko ardura izango luke. Baita, Alokabideri hitzarmena garatzeko behar den informazio guztia emateko ere. Eta etxebizitzak kudeatzeko lanek eragindako gastuak ordainduko ditu.



12 DIRA ERAIKIN HONETAN ALOKAIRURAKO ZUZENDUTA DAUDEN ETXEBIZITZAK.

Lankidetzaz hitzarmena formalizatzen den unetik, 2009ko abenduaren 31 arte egongo da indarrean.

Hamabi etxebizitza, eskatzaile profil desberdinentzat

Lehentasun hurrenkera kontuan hartuta, zozketarako hamabi etxebizitzak honako lau kupertan banatuko dira.

EZINDUAK:

Etxebizitza kopurua: 2.

Norentzat: mugikortasun urri iraunkorrek ezintasun egoeran daudenentzat, gorpil-aulkian betiko egon behar ez dutenentzat.

BABES BEREZIKO SEKTOREAK:

Etxebizitza kopurua: 4.

Norentzat: beren kargura adin txikikoak dituzten guraso bakarrek bizikidetzaz unitateak, genero-indarkeriaren biktimak, bananduak eta dibortziatuak, 70 urtetik gorako pertsonak...

GAZTEAK:

Etxebizitza kopurua: 4.

Norentzat: 30 urtetik beherako bizikidez osaturiko bizikidetzaz unitateentzat.

KUPO OROKORRA:

Etxebizitza kopurua: 2.

ESLEIPENA: Zozketa bidez.

ERRENTA KONTRATUAK, GEHIENEZ 5 URTEKOAK

Urtebetekoak, gehienez bostekoak. Kontratuaren epemuga iritsita, luzapenik ez bada, etxebizitza Udalaren eskutara igaroko da berriz.

Usurbilen erroldatua egotea azken 8 urteetan, edo egoiliar izanik eta etenik gabe azken 5 urteetan.

Diru sarrerak: 3.000 euro eta 27.000 euro artean.



Goizez bilduko dira hondakinak

Otsaila erdialderako martxan jarri nahi da atez ateko bilketa sistema

Atez ateko hondakin bilketa sistema berriko udal proposamena aurkeztu zen abenduaren 1ean. Udal ordezkariak bilkurara agertzeko deialdiarekin bat egin zuten herritarrek, beste behin. Ikusi besterik ez zegoen Sutegiko auditoriora sartzeko zegoen jende ilara luzea. Atez ateko bilketa sismeta berria otsaila erdialde edo amaiera aldera abian jartzea aurreikusten da. Artean, datozen asteetan prestakizun lanek aurrera jarraituko dute.

Bilera lekuko eskailerak ere eserlekuan bihurtu ziren, aste hasierako saioan. Bertaratutako guztiak sektoreka eta auzoka egindako bi bilera errondetan, udal ordezkari eta herritarren arteko elkarlanak zer nolako emaitzak ekarri zituen ezagutzeko prest ziren.

ATEZ ATEKOA

“Bilketa sistema berria martxan jartzen denean, zabor ontziak desagertuko dira, bat izan ezik; beirarena”

Bilketa, goizez

Atez ateko bilketa sistema berria, otsaila erdialde edo amaiera aldera martxan jartzea aurreikusten du Udalak. Sistema berriak zonaldeka izango dituen ezaugarrien berri eman zuten, aste hasieran Sutegiko auditorioan burutu zen ekitaldian.

Hirigunean, bilketa goizez egingo da. 6:30-8:30 tartean, hondakin zatia etxe



SUTEGI BERRIZ ERE TXIKI GERATU ZEN ABENDUAREN 1EAN. GUZTIEK, HONDAKINEN SISTEMA BERRIARI LOTUTAKO UDAL PROPOSAMENA EZAGUTU AHAL IZAN ZUTEN.

atarian utzi beharko da. Jarraian bilketa lanak hasiko lirateke. Gogoratu, egutegi bat finkatu eta bertan zehaztuko da egun bakoitzean zer hondakin zati atera behar den etxe atarira. Aldez aurretik, hondakinak gaika ondo sailkatu ostean.

Bilketa sistema berria martxan jartzen denean, zabor ontziak desagertuko dira, bat izan ezik; beirarena. Aipatu hondakin zatia orain arte bezala birziklatzen jarraitu beharko da beraz.

Nola utzi?

Zati organikoa etxe atarian uzteko 10 litrotako ontzi marroiak banatuko ditu Udalak. Papera eta kartoia, soka batekin lotua edota paperezko poltsetan utzi beharko da. Gainerako zati bakoitza poltsatan sartuta utzi beharko da.

Hori guztia ondo definitu eta aztertzeke, udal ordezkariak etxe atarrietara bisitaldiak egiten hasiak dira.

Larrialdi guneak

Goizeko lehen orduetan, etxe atarian zaborra utzi ezin duenak larrialdi guneetako batera jo dezake; Atallu, Zubieta edo Aginagara. Orduetegi librea izango lukete hondakinak uzteko. Erabiltzaile bakoitzak gune hauetara sartzeko txartela jasoko du.

Larrialdi guneetara joko dute, baita landa eremuko herritarrek ere. Ingurune hauetan, organikoa ez beste zatiak ez baitira etxez jasoko. Parte hartze prozesuari lotutako bilera errondetan aipatu izan denez, landa eremuko herritarrek hirigunera joateko ohitura

ANTXETA
taberna-jatetxea
agitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak
EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

Zuen
publizitatea
hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.com

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K/Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

dute. Horregatik, Atallun, Zubietan eta Aginagan zabalduko diren larrialdi guneetan dagozkien hondakin zatiak utzi ahal izango dituzte, ordutegi librean eta sarrera txartelekin.

Zati organikoari irtenbidea emateko, autokonpostajea bultzatu nahi da. Egun Udalak kalkulatu duenez, landa eremuko 80 bat bizilekutan egiten dute etxeko konpostajea. Sistema berria abian jarrita, eremu hori zabaltzea litza-teke Udalaren asmoa; balizko autokonpostatzaileekin harremanetan jarri eta herritarren zerrenda osatuko dute.

Gainera, Udalak autokonpostajerako makinak banatuko ditu. Nahi duenak formakuntza ere jaso ahal izango du, Udalak antolatuko duen doako ikastaroan parte hartuta. Hirigunean bizi eta etxe atarian lorategiren bat dutenen kasuan ere etxeko konpostajea bultzatuko da. Egunotan informazioa eta izen emateko triptikoak banatuko dira. Etxean konpostajea egiten duten guztiek, hondakinei lotutako tasetan %40ko beherapena izango dute.

Garbitxikia Zubietan

Lehen aipatutako hiru larrialdi gune-tako bat Zubietako Garbitxikia izango da. Leku itxi horretan auzo konpostajea bultzatuko da. Eta gaika biltzeko hondakin zatien tokia ere izango da. Beraz, herritarrek bertara eraman ahal izango dituzte hondakin zati guztiak. Baina Zubietan ere, etxeko konpostajea bultzatuko da, landa ingurune ko baldintza berdinetan.

Azkenik, komertzio eta poligonoetan sortzen den hondakin kopuruaren eta ematen den bilketa zerbitzuaren arabera kobratze sistema jarriko da martxan. Bilketa egunez egingo da. Orain, industria gune eta saltokietan sortzen den hondakin kopurua zenbatekoa den ezagutzeko informazioa bilduko dute, gero ontzi egokiak banatzeko.

Urtarrilean, informazio zehatza banatuko du Udalak etxez etxe

Hondakinen bilketa sistema berriaren inguruko mapa aurkeztu zen, abenduaren 1eko bilkuran. Zonaldeak eta ingurune arteko mugak definituta daude beraz; hirigunea, landa eremua, Zubietan, edota salkoki eta industria guneak. Baita sistema berriari lotuta, lekuan lekuko martxan jarriko diren egitasmoak ere; atez ateko bilketa, larrialdi guneak, etxeko edo auzo konpostajea edota Garbitxikia.

Hondakinen kudeaketa sistema berriaren mapa osatua du Udalak. Zonalde eta sektore guztietan hondakinen bilketa ez baita modu berean gauzatuko.

Hirigunean atez atekoa bultzatuko da. Zehazkiago aipatuta, Kaxkotik Ibarrola, Enbillene, Troia eta Atxegalderaino; **Aginagan** Intxaurreta ingururaino; **Txokoaldeko** hirigunean eta **Urdaigagan** errepede ondoko etxebizitza guztietan, Igartzazabal, Berraiartza Barrena eta Berraiartza Bitarte aldera doazen sarbideetan izan ezik; **Santuenean** auzo osoan, Sañarrienea, Errotaberri eta Urteagan izan ezik. Aipatu bezala, leku horietan guztietan atez atekoa bultzatuko da.

Hirigunetik at

Hortik kanpo geratuko litzateke landa eremua, bertan zati organikoari irteera emateko autokonpostajea bultzatuko baita eta gainerako hondakin zatiak uzteko larrialdi guneak erabili

ahal izango dituzte. Zubietan Garbitxikia kokatuko da. Komertzio eta poligonoetan berriz, atez atekoa bultzatuko da.

Hemendik aurrera...

Abenduaren 1eko saioa kontuan izan gabe, ia mila herritarrek parte hartu dute sektoreka eta auzoka antolatu diren bilera errondatan. Hondakinen gaia, udal ordezkarien esanetan, "ulertu dugu guztion erantzukizuna dela".

Parte hartze prozesua ez da etengo, aurrera jarraituko du. Baita egun, zonalde desberdinetako 24 herritarrek osatua dagoen Jarraipen Batzordeak ere. Udal ordezkariak interesa duen edonori bertan parte hartzera deitzen dute.

Sistema berriaren ezaugarriak definitu edota baliabideak prestatzen joatea datozen asteotako Udalaren zereginen artean egongo dira.

Bestalde, atez atekoa martxan jarri aurretik herritar bakoitzak Udalaren eskutitza jasoko du. Bertan, kupoi bat egongo da egutegi, birziklapen gida eta organikoa jasotzeko ontziaz osatutako kaxa batekin trukatu ahal izango dena.

Azkenik, udal ordezkariak aurreratu zuten, gaiari buruzko dokumentazio zehatzagoa banatuko da etxeetan urtarri aldera. Bitartean, zabalik jarraitzen dute beste komunikazio bideek:

-Informazio bulegoa: Sutegiko erakusketa aretoa.

-Web orria: www.usurbil.net/atezate

-E-posta: atezate@usurbil.net

-Doako telefonoa: 900 776 776.

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA



Mikel Laboa, kantari guztien kantari

Astlehenean zendu zen Mikel Laboa, euskal kulturgintzaren ikur nagusietako bat. Ez dok Amairuren garaitik, lotura estua zuen Donostiako kantariak Usurbilekin. 1985eko Santixabeletan, uztailaren 4an gure herrian eman zuen saiorako, bere kantuak jasotzen zituen liburuxka bat prestatu zen. Hitzaurrea J. A. Artze poetak egin zuen. Mikel Laboa, poema honen titulurekin hitz-jokoa eginez, kantari guztien kantaria.



“EZ DOK AMAIRU” GARAITIK HARREMAN ESTUA ZUEN USURBILEKIN. IRUDIAN, ATAHUALPA YUPANKI ETA EZ DOK AMAIRUKO LAGUNEKIN BATERA, 60KO HAMARKADAN TXOKOALDEN EGINDAKO ARGAZKIAN.

KANTU GUZTIEN KANTUARI

Damurik gabe, atzokoaren damurik gabe; beldurrik gabe,
biharkoaren beldurrik gabe, nahi dut gaur kantua hel dakidan,
nahi dut zuei kantua hel dakizuen.

Ez da enea kantua; ez da zuena, oraino, nahiz eta nigan, nahiz eta zuengan, betitik datzan, ernatzeko zorian, loratzeko zain.

Guk geuk gugan baino, beragan gauzka kantuak. Guk geuk kantua baino, kantuak gaitu gu hautatzen, kantu-ontzi izanez, kantu-bide izan gatzazkion.

Ez dagokio besterik kantariari, kantatzen uztea kantuari.

Ederrik denean, beraz, ez beha kantariari, kantuarena da hori. Okerrik denean, aldiz, ez dagokio kantuari okerraren errurik, kantariari baizik.

Urruna dugu kantu hau, eta hurbila, hurbilik bada;
urrunena urrunetan, izar guztiek dutenez lotkarri,
hurbilena hurbiletan, bihotz muinean duguna iturri...
kanturik haundiena, tokirik ttikienean.

Kantu bakarra.

Gure kantu honek ez du inork derraken hitzik,
Ez eta, ozena izan arren, ia inork dentzukeen hotsik;
Hala ere badu aski hatsik, kantuz asebetetzeko gertu ta prest dena hutsik.

Esana dagoena kantatzera, idatzita dagoena irakurtzera darama kantuak kantaria, lehen ikusten ez zuena orain erakustera, gero ikusiko duena orain adieraztera.

Kantua kantu denean, kantaria ez da ikusten, kantuak bait digu ezkutatzen. Kantuak ez duenean kanturik, ez da nabarmen kantaria baizen,
ez bait du non ezkutaturik.

Iraganaren damurik gabe, etorkizunaren beldurrik gabe,
betorkigu gaur kantua, zuei doakizuen; hel bekigu, hel dakizuen kantua
zuei, oraingooi, hemen zaudeteno,
zuei, lehengooi, hemendik joandakooi,
zuei, gerokooi, honera etortzekooi;

bekizue guztioi dagokizuena; bekizue eguzkia bezainbat,
eguzkia bezain berri, bezain zahar den gure kantu hau:

gaurko kantu, gaurkoontzat,
atzoko, atzokoontzat;
biharko, biharkoontzat,
eta betiko kantu denontzat...

Eta denean okerrik, oroi, ez egotz errurik, otoi,
betiko kantuari, eta bai egungo kantariari.

“Uretan lez”, Yolanda Arrietaren berriena

Durangoko Azokan salgai izango da bilduma moduko liburua

Yolanda Arrietaren berriena, Durangoko Azokan aurkituko dugu; “Uretan lez”, egunkarrietan idatzitako testuen bilduma. Erein etxeak argitaratu du.

NOAUA! Nondik norakoa da zeure testu bilduma?

Yolanda Arrieta. Iritzi artikulua moduan hasi zen. Baina konturatzen nintzen azken momentuan iritzi artikulua beti kamuts gelditzen zela, albiste handiago bat zegoelako. Egokitzen zitzaidan bakoitzean, gustura idazteko zerbait, deskubritzeko ariketa bat izatea nahi nuen. Beti hartzen nuen eguneroko bizitzako anekdota txikiren bat.

YOLANDA ARRIETA

“Material asko zegoen, soltean. Lotzeko gogoia nuen. Deigarrienak zirenak hartu nituen”

Hortik hasi, tira egin eta ahalegintzen nintzen bukaeran zerbait esaten. Ez beti iritzi bat, izan zitekeen galdera, ironia edo bukaera eliptiko bat ere. Askotan hitz eder bat bezain ederra da elipsi on bat. Aukeratutakoa.

Boliviarraren testigantza

Mundubat taldeak antolaturiko Herri Indigenen Jardunaldien harira, hainbat hitzaldi eman ditu azken egunotan Segundina Floresek, Boliviako Las Bartolinas erakundeko buruak. Aurreko astean, Elkartasun Asteak gonbidatuta, hitzaldia eskaini zuen Sutegin. Hori baino lehen, Udalak harrera egin zien Elkartasun Asteko antolatzaileei eta baita Segundina Flores boliviarrari ere. Oroigarri bat eta udal ordezkarien zein herritarren berotasuna eraman zuen etxera boliviarrak emakumeak.

N. Aukeratu beharra izango zenuen?

Y. A. Material asko zegoen, soltean. Lotzeko gogoia nuen. Deigarrienak zirenak hartu nituen, literarioenak edo zerbait esan nahi zutenak. Beti mugitu izan naiz, natura, gizartea eta neu artean. Gizartean dagoen zerbait, albisteetan etortzen dena, edo kalean ikusten duzuna, ohiturak, gizarte bizitzak ematen duena. Eta baita natura ere; eguraldia, egutegia, etxean entzun eta irakurritakoa, esaerak... Eta neu, neu nin-tzelako hori guztia hartu eta neure galbahetik pasatu ondoren, berriro bota-tzen nuena. Artikulu guztiak jaso, berriz irakurri eta sailkatzen joan nintzen. Azkenetan, ura zegoen askotan.

N. Uraren presentzia nabarmena da?

Y. A. Beldurra ematen dit itsasoak. Indartsua da. Metafora moduan, asko erabiltzen nuen hitza zenez. Egunerokotasunari lotutako idatziak izan dira. Ura bezalakoak, bizitza bezalakoak. Zaude, bizi zara, baina badoa.

N. Formatu txikien eraginkortasuna aipatzen duzu. Baina idaztelarentzat ez al da muga ideiak adierazteko?

Y. A. Mugak jokoaren arauak dira. Niri jokia gustatzen zait. Lortu egin behar nuen, guztia 1.400 karakteretan esatea.



YOLANDA ARRIETAREN LAN BERRIENA
EREIN ARGIALETXEAREN SALTOKIAN
IZANGO DA DURANGOKO AZOKAN.

Irakurleak goizean egunkaria hartu eta kafea hartzen imajinatzen nituen. Ia lortzen dudana kafea hartu artean edo uneren batean, kafea utzi eta etenik gabe irakurtzea.

N. Durangoko azokan ikusiko zaitugu beraz?

Y. A. Seian joango naiz. Ereingoen gunean egongo naiz liburuak sinatzen. Gero beste batzar bat ere badut eta lagunekin ere egongo naiz.



HITZALDIA BAINO LEHEN, UDALETXEAN HARRERA EGIN ZITZAION BOLIVIAKO SEGUNDINA FLORES LAS BARTOLINAS TALDEKO KIDEARI.

Iturriotzko kobazuloetan barrena

Egun zoragarri bat aurrean genuela DBH 1eko irakasle eta ikasleok Iturriotzko kobazuloa joan ginen. Oso ezkutuan zegoen bisitatu behar genuen leizezuloa, sarrerak elur zuloa zirudien.

Soka bat estaka batean lotu eta beherantz jaisten hasi ginen, urduritasun gehiena hementxe pasa genuen gehienok; ondoren kaskoekin eta kopeteko argiaren laguntzarekin barrura sartu ginen. Sakonera handia zuenez putzuak baziren eta hezetasun handia ere bai. Saguzarrak hantxe zuden, oso iluna baitzegoen, baina ez ginen beldurtu lo zeudelako. Koxkak ere igo eta jaitsi genituen, erorketak ere izan ziren!

Estalagmitak eta estalaktitak

Bi galerietan isiltasuna gorde genuen kobazuloan zer sentitzen genuen jakiteko. Bertan izandako

esperientzia oso polita izan zen eta aldi berean zirrargarria. Iluntasunean murgiltzen ginen bitartean, kobazulo-ko bizitza nolakoa zen pentsatzen genuen.

Abentura honetan aurrera gindozen neurrian kobazulo-ko bideak gero eta estuagoak eta txikiagoak ziren, horregatik lau hanketan, arrastaka,... ibili ginen, zirrara eta inpresio bitxi bat somatu genuen.

Estalagmita eta estalaktita ugari ikusi genituen, haietatik ura erortzen zen gainera, eta esan ziguten 100 urte-tan zentrmetro bat hazten direla.

Ederki, primeran, bikain... pasa genuen, gurasoei lan pixka bat ere jarri genien lokatzez betetako arropa guztia garbitzen. Eta joan nahi duenarentzako, merezi duela esan behar diegu. Hori bai, lehenik gerriko zentrimetroak neurtu ditzala!

DBH 1



“ABENTURA HONETAN AURRERA GINDOAZEN NEURRIAN, KOBAZULO-
KOBIDEAK GERO ETA ESTUAGOAK
ETA TXIKIAGOAK ZIREN”.

Amodiozko gutun lehiaketa Santuenean

Lehiaketa honetan 15-25 urte bitarteko usurbildar gazteek parte har dezakete. Lan guztiak jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute.

Santuenea Kultur Elkartearen lokalean aurkeztu beharko dira lanak abenduaren 12an, arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak bitartean. Lanek gutun forma izan beharko dute eta DIN A-4 orritan eskuz zein ordenagailuz idatzita aurkeztu ahal izango dira.

Saria, abenduaren 20an

Egilearen datuak (izena, adina, telefonoa eta helbidea) kartazal itxi batean sartuko dira, ondoren kartazal txiki hau eta gutuna kartazal handiago batean sartu eta aurkeztuko dira.

Irabazlearen izena abenduaren 20an jakingo da. Saria: 100 euro.

Gabonetako postalen lehiaketa martxan

Usurbildar haur eta gaztetxoek parte har dezakete parte lehiaketa honetan. Gabonetako ohituren inguruan osatu beharko dira postalak eta folio erdiko tamainan marraztu beharko dira. Edozein paper mota edo teknika erabil daiteke.

Lanak izenik gabeko eta itxitako gutunazalean aurkeztuko dira, barruan beste gutunazal bat egongo da egilearen identifikazio datu hauekin: izena, adina, helbidea, telefonoa.

Kategoria bakoitzeko irabazleari 30 euroko bono bat emango zaio liburu denda batean materiala eros dezan.

Abenduak 12, azken eguna

Santuenea Kultur Elkarteak duen lokalean aurkeztu beharko dira postalak abenduaren 12an, arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak bitartean.

Datorren astean, jostailu azoka



Jostailu, ipuin, liburu, jolas... erabilien azoka egingo da datorren astean. Hitz Aho guraso elkarteak antolatu du jostailu azoka eta datorren larunbat eguerdian egingo da frontoian, abenduaren 13an, 12:00etatik 13:30era.

Azokara jostailurik eraman nahi duenak, Sutegitik pasa beharko du datozen egunetan. Sutegiko sarreran bilduko dira jostailu, ipuin eta liburuak, abenduaren 10etik abenduaren 12ra, arratsaldeko 17:00etatik 18:30era.

Badator Mendi Astea

Proiektzioak, mendi ibilaldiak eta bazkaria, ekitaldi nagusiak

Abenduak Mendi Astea ekarri ohi du. Jada kultur eta kirol agendan finkatu den ekitaldia da. Aurten ere, heldu nahiz gazte-txoentzako ibilaldiak antolatu ditu Andatza Mendi Elkartek. Urtero bezala, Andatzakoek bazkaria egingo dute baina, aurten, Aiako Santio auzoko jatetxe batean egingo da bazkaria. Mendi Asteak irauten duen egunetan, 2009ko mendiko txartela ateratzeko aukera izango da. Azaroan martxan jarri zen bideo eta argazki lehiaketaren irabazleak ere Mendi Astean emango dira ezagutzera.



IAZ, DIARTZUN-ARANTZA BIDEA OSATU ZUTEN MENDI ASTEKO IBILALDIAN.

Mendi Astea, egunez egun

ABENDUAK 9, 10 ETA 11

BIDEO EMANALDIAK SUTEGIN

Bideo eta argazki muntaien lehiaketan parte hartu duten lanak ikusgai Sutegin, 20:00etan.

Egun hauetan, 19:00etatik aurrera, 2009ko mendiko txartela ateratzeko aukera izango da Sutegin bertan.

Egun hauetan ere, abenduaren 13an egingo den helduen ibilaldirako eta ondoren egingo den bazkarirako txartelak erosteko aukera izango da Sutegin bertan.

ABENDUAK 13 LARUNBATA

HELDUEN IBILALDIA ETA BAZKARIA Zumaia-Aia/Orio arteko ibilaldia.

1. EuskoTrenaren bitartez, Usurbil-dik Zumaiaraino joango dira eta handik oinez Aia/Orioraino itzuli.

2. Bazkaria Santio auzoko Sega jatetxean izango da eta urtero bezala

“babarrun jana” izango da.

3. Txartelak salgai Sutegin abenduaren 9, 10 eta 11n. Salneurria: 10 euro (gainontzekoa egunean bertan).

4. Irteera: Goizeko 8:00etan, Andatzako lokalean.

ABENDUAK 14, IGANDEA

UMEEN IBILALDIA

Usurbil/Andatza inguruan 2-3 orduko ibilaldia. Ondoren opariak parte hartzaileen artean banatzeko.



Andatza

Amador Granadoren omenezko bazkaria

Lagunen ekimenez, Amador Granado txirrindulariak omenezko bazkaria jasoko du datorren astean. Lehenik, bizikletarekin bueltaxka bat emango dute; 9:00etan kiroldegi aurretik aterako dira. Martxatik bueltan, Udalak harrera egingo dio eta azkenik bazkaria egingo da Saizarren. Txartelak Laurok dendan daude salgai. Izena aldeztu aurretik eman behar da.

Pilota partidak

ABENDUAK 5 OSTIRALA

Usurbilen, 20:00

Gipuzkoako Txapelketa, azken laurdenak Eskuz binaka jubenilak, 2. maila USURBIL - LAPKE 1

(Iban Arruti - Josu Ostolaza) (Lazkao)

Eskuz binaka nagusiak, 2. maila

USURBIL 1 - BEHAR ZANA

(Jabier Santxo-Asier Katalina) (Villabona)

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 - ASTEASU
943 69 68 52 - 620 800 186

Agenda !

Abenduak 6 larunbata
Baztango Nekazaritza Kooperati-
bara bisitaldia. Irteera goizeko
10:30ean, Alkartasuna kooperatiba-
tik. Izen-ematea: 943 361 114.
Bazkaria: 20-25 euro.

Abenduak 9/ abenduak 14
Mendi Astea (Ikus 15. orrialdea).

Abenduak 12 ostirala
"Ate joka", antzerkia, 22:00etan
Sutegin. Sarrerak alde aurretik kirol-
degian salgai, 5 eurotan. Egunean
bertan, 8 euro. Antzezleak: Iker
Galarza, Sara Cozar eta Joseba
Usabiaga.

Abenduak 13 larunbata
Jostailu erabilien merkatua fron-
toian, 12:00etatik 13:30era.
Jostailuak jasotzeko egunak: aben-
duaren 10etik 12ra, 17:00etatik
19:00etara Sutegiko sarreran.

Abenduak 14 igandea
- **San Tomas azoka.** Goizean, fron-
toian eta Dema plazan. Sagardo eta
babarrun lehiaketak eta Usurbilgo
Aizkora Txapelketa.
- **Txotxonfilo ikuskizuna.** "Irudi-
mendeko hiria", Gorakada Teatroa.
17:00etan, Sutegin. 5-8 urte arteko
haurrentzat. Sarrerak alde aurretik
kiroldegian, 2 eurotan. Egunean ber-
tan, Sutegin, 3 euro.

Astehenean,

Odol Emaileen Eguna

Usurbilgo Odol Emaileen
Eguna izango da datorren
astehenekoa. Aurten, Antxeta jate-
txean egingo da ospakizuna.
Lehenik, ordea, zendutako odol
emaileak gogora ekarriko dituzte eta
ondoren Antxeta jatetxean bilduko
dira. Azaroaren amaieran bukatu zen
bazkarian izena emateko epea.

Abenduaren 14an, San Tomas azoka Usurbilen

A benduaren 21ekoa da San
Tomas. Baina Usurbilen,
astebete lehenago ospatu
ohi da, aurten, abenduaren 14an.
Beste behin ere, NOAUA!k baba-
rrun eta sagardo lehiaketa jarri ditu
martxan. Beraz, parte hartu nahi
duten baserritar eta ekoizleek,
NOAUA!tik pasa beharko dute
abenduaren 11 baino lehen. Aurten,
lehen aldiz, Usurbilgo Aizkora
Txapelketa jokatuko da.

SAGARDO LEHIAKETA

Sagardoa etxean egiten duena
lehiaketara aurkezten daiteke, herri-
tarrek proba dezaten eta, gainera,
lehiaketan parte har dezake. Partaide
bakoitzak 8 botila ekarri beharko
ditu eta botila bakoitzeko 1,5 euro
ordainduko da. Sagardotegiak ez dira
sartuko lehiaketa honetan.

BABARRUN LEHIAKETA

Partehartzaile bakoitzak kg 1 baba-
rrun aurkeztu beharko du. Trukean,
12 euro ordainduko dira.
Lehiaketan, ezaugarri hauek hartuko
dira kontuan:

Itxura: osorik edo hautsita dagoen,
zimurrak...

Kolorea: zenbat eta beltzagoa
orduan eta hobeagoa.

Berdintasuna: tamainaz, kolorez...
elkarren berdinak izatea.

Dizdira: berezko dizdira beste edo-
zein produktuekin (olio, abrilanta-



SAN TOMAS ABENDUAREN 14AN
OSPATUKO DUGU USURBILEN.

dore...) estali edo aldatua izan bada
lehiaketatik kanpo utziko da.

Garbitasuna: partikula arrotzik ez
izatea.

IZEN-EMATEA,

ABENDUAREN 11 BAINO LEHEN

Sagardo zein babarrun lehiaketetan
izen emateko azken eguna abendu-
aren 11 izango da. Izen ematearekin
batera, lehiaketan parte hartuko
duten babarrun eta sagardoak ekarri
beharko dira NOAUA!ko egoitzara.

Baldintzak eta gainontzeko zalan-
tzak argitzeko deitu NOAUA!ra,
bulego orduetan (943 360 321).

SARIAK

Babarrun zein sagardo lehiakete-
tan, sari hauek banatuko dira:

Lehen saria: 150 euro + txapela

Bigarren saria: 80 euro

Hirugarren saria: 50 euro

Antolatzaileak: NOAUA! eta
Sagardo Egunaren Lagunak.

Usurbilgo Aizkora Txapelketa jokatuko da aurtengo San Tomas azokan

San Tomas egunean, lehiaketako
sariak banatu ondoren,
Usurbilgo Aizkora Txapelketa jokatuko
da. Bertan duela 20 urte aritutako
aizkolari usurbildarrak eta egungo
gazteak arituko dira lehian: Inaxio

Pagola "Iruntxo", Juantxo Esnal
"Arrilla I", Urtzi Olasagasti, Xabi
Dorronsoro eta Aritz Esnal "Arrilla
II". Bost aizkolari eta bakoitzak lan
hau osatu beharko du: 45 hontzako bi
enbor eta kana-erdiko lau.

ETXEBIZITZA

- Bikote batek logela alokatzen du bakarrik dagoen pertsona bati. Prezioa 280 euro gehi gastuak. 943575788 / 609901734.
- Pisu salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m² - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m²), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trasteleku eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Kaxkoan pisu bat alokatzen dugu, garajea eta trasteroa dauka. Abala eskatuko da. Deitu 18:00tatik 21:00etara 649 261 704 telefono zenbakira.
- Usurbildar gazte bat alokairuan dagoen etxe baten bila, Usurbilen. Tf: 652 750 789.
- Etxe bat alokatu nahiko nuke ahal bada Usurbilen edo inguruan, bakarrik edo konpartitzeko. 620431108.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte oso-rako. 675709894
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilaguntzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena bertitua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 220.000 euro. 678084020.
- Usurbilen alokairuan bizitzeko logela edo pisu baten bila nabil. Bakarrik edo konpartitua. 625706912.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukaldea, egongela eta trasteroarekin. 685731792.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Bost ateko Nissan Micra daukat salgai. Matrikula 4545DNN. 666894283 (Ana).
- Atxegalden 32 metro karratuko garajea alokatzen dut. Garaje edo almazen moduan ibiltzeko sarre-ra egokia. 943373481
- Honda CBF-250.c motorra daukat salgai. 3 urte ditu eta 5500Km, egoera oso onean dago eta garajeen egondakoa da. 657770131.
- 5 ateko Peugeot 306 diesela salgai. Egoera onean, prezio ona (800 euro negoziagarri). 652713312 (Merce).
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. Interesatuak deitu 658716970 telefonora.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabiltza. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajeen egondakoa. 620625823.
- BMW 650F motorra daukat salgai. Egoera onean eta garajeen egondakoa. 666988050.
- Galtzaraginan 14 metro karratuko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Txiribogan sukaldaria behar da, ostegunetik igandera. 699 451 082 (Arantxa).
- Antxeta jatetxean kamarera behar da, astelehenetik ostiralera lan egiteko.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta umea zaintzeko pertsona behar da. 627278907.
- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

Lan-eskaerak

- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, 646717676
- Mekanikari lanak egiteko edo baserriko lanak egiteko prest nago. 690261041
- Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo tabernari lanak egiteko ere prest nago. 608835033
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.

- Neska euskaldun bat behar da Kinkildegian lan egiteko. 609099824 / 943214508.
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsalde umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 679062726 / 943575788
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsalde umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 661702708 / 943575788
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko goizeko 7:30etik goizeko 9:30/10:00ak arte. Umeak zaindu edota ikastolara eramateko, astelehentik ostiralera. 647 742 893.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrik emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da, esperientziaduna. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Azaroaren 18an giltzak galdu nituen Eguzkitzaldean. 635 701 374.
- Ostegun iluntzean, errealeko jertsea galdu nuen frontoian. Norbaitek bilatu badu, 686969112
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Yorkshire terrier arrazako txakur bat galdu zaigu. 609 653 440. Itzultzen duena saritua izango da.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Bakarkako haur ohe bat salgai koltxo eta guzti. Tamaina: 90 x 1,90. Oso gutxi erabilia eta polita. Interesdunek: 629 730 299.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaiaberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Aritz egurrezko aulkiak salgai. 943 36 20 49.
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net

Zorionak bikote!
Iratik abenduaren 4an 8 urte beteko ditu eta Modestak abenduaren 8an, berriz, urte batzuk gehiago. Muxu eta besarkada handi bana etxeko guztien partez.



Zorionak Aiora eta Asier!
Abenduaren 4an egingo dituzue 2 urte. Zorionak eta txokolatzeko muxuak biontzat gurasoen partez.



Zorionak Mikel!
Abenduaren 1ean egingo dituzu 8 urte. Muxu bero bat etxekoen partez eta egun on bat pasa dezazula!



Zorionak Politta! Jada zure 5. urtebetetzea iritsi zaigu, ia amatek tartatxo goxo-goxoa egiten dugun eta denok batera ospatzen dugun! Muxu handi bat etxekoen partez. Urte askotarako!



Zorionak Aitziber!
Hilaren 6an hain egun garrantzitsua izanik, hara gure neskato Aitziberrek 2 urte betetzen ditu. Zure familia osoaren izenean Zorionak!



Zorionak Ametsa!
Abenduaren 9an, egingo dituzu 6 urte. Egundoriontsu bat izan dezazula. Zure aita eta amaren partez muxu handi bat.



Zorionak Goiatz!
Abenduaren 9an egingo dituzu 2 urte. Zorionak eta muxu potolo bat, gurasoen partez.

JAIOTZAK

Mireia Palacios Rodriguez, azaroak 23
Leire Mantecon Oyarzabal, azaroak 27

Otar-Goxo

E l i k a g a i a k

Gabonetako Otarrak aukera onena prezio ezin hobean



1.Otarra

"Marqués de la Concordia" D.O Rioja
"Fonpinet" Gran Reserva, Cava botila
Urdai-azpiko iberiko zorroa
Solomo iberiko zorroa
"Lodosa D.O" Esparrago lata
"Goiburu" foie medalloia
pasazko ogia
"Eceiza" 3 trufazko turroi artesanoa

60 euro

2.Otarra

"Marqués de la Concordia" D.O Rioja
"Fonpinet" Gran Reserva, Cava botila
"Ameztoi" Txakolin botila D.O
Urdai-azpiko iberiko zorroa
Solomo iberiko zorroa
"Roncal D.O" gazta
"Lodosa D.O" Esparrago lata
"Lodosa D.O" Piper pikilo potoa
Kantauriko hegaluze potoa
"Goiburu" foie medalloia
pasazko ogia
"Eceiza" 3 trufazko turroi artesanoa

100 euro

3.Otarra

"Marqués de la Concordia" D.O Rioja
"Fonpinet" Gran Reserva, Cava botila
"Primus Ameztoi" Txakolin botila D.O
Urdai-azpiko iberiko zorroa
Solomo iberiko zorroa
"Aranburu Idiazabal D.O" gazta
"Lodosa D.O" Esparrago lata
"Lodosa D.O" Piper pikilo potoa
Kantauriko hegaluze potoa
"Arrospide" onddo potoa
"Goiburu" 2 ahate konfit
"Goiburu" foie medalloia
"Goiburu" onddo saltsa potoa
pasazko ogia
"Eceiza" 3 trufazko turroi artesanoa

150 euro



Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil



laister Usurbilen....



EDERTU ZAITEZ!



Ioli Lizarralde
 ileapaindegia • Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik
 Zubiaurrenea, 5-B. ☎ 943 361 971



Jwar
 ESTETIKA

- tatuaiak
- piercing
- fotodepilazioa
- mikropigmentazioa
- hortzetako kristalak

munaturre 2, Usurbil ☎ 943 571 680



Agate
 ESTETIKA ZENTROA

- Depilazioa • Laser-depilazio
- Manikura • Aurpegiko Tratamendua
- Pedikura • Solariuma • Makilajia

Nagusi 51 • Lasarte-Oria 943 370 549



Intza
 WELLA ILEAPAINDEGIA

**%20, %30,
 eta %50ko
 DESKONTUA!!!**

LASER DEPILAZIOA
 erate LightSheer laserarekin

Eguerdian irekia!!!

Nagusia 8, 943 363 641



Elexpe
 ileapaindegia

Betileen tintaketa
 eta permanentea

Estetika • Tatuaiak
 Zuhikako eta Etzandako
 Solariuma

Muna Lurra 12. ☎ 943 370 462



ileapaindegia mistoa

Depilazioa
 Makilajea
 Manikura

Zubiaurrenea 4, USURBIL • ☎ 943 361 951